EUSKERARI BURUZ

Aintxiña eztala euskal-gaiezko idazki bat eskúratu zidaten. Idazki orrek' bazituan *gauza egokirik asko,* atalka banandurik; orraitio, atal oietariko bizpairuri' ezarriko dizkiet oarpen batzuk. Ikus.

A.—Lenbiziko atal onek' au dirauskigu:

"*Los apellidos es correcto escribirlos con la grafía jurídica o legal: Arteche, Haramboure...*"

Ori soil-soillik esatea' ezta egoki, nere ustez. Euskal-deiturak, *euskeraz diran bezela* iraun-arazteak' balio aundia du, euskotarren artean, euskal-zaletasuna sortzeko. Aitagandik edo amagandik (baita goragoko senideetarik ere) euskal-deituraren bat idukitzea' aski da, sarri-askotan, euskera maitatzen asteko. Eta "*asiyak egiña dirudi*" esan oi da gure artean; eta sortzaldeko eskualdunen artean' "*hasia jada erdi egina da*".

Beraz, gure euskal-deiturak garbiki bizi-arazteko' zerbait egin beár luke Euskaltzaindiak. Baiña lotsagarria dégu, zer orretzaz, toki askotan gertatzen zaiguna.

Bayona-n zabaldu zúten, oraintsu, *Intxauspe* izeneko Banku-etxe bat. Garai artan, Banku-etxe ortan zeregin bat nualarik' galdetu nuan: "¿C'est le Banque *Intxauspe*?" Lenbizi galdetu nionak, etzidan konprenitu; urrean zegoan beste batek: "¡Ha! —esán zuan—. C'est en espagnol qu'on dit comme ca; nous disons NXOSP" (irakurri au euskal-ortografiz).

Eta ola-ola itxuragabetzen dira beste euskal-deiturarik asko: "Erkar" "Errekarte" ordez; "Oreja" —erdaldunen "belarria"— "Orexa" ordez; eta abar. ¡Euskera gaixoa!... Euskaltzaindiak olako itxuragabekeriak ebitatzeko modurik edo-ta

entzupiderik eztuan artean' obe du, deitura-autu orrezaz, ixilik egon.

B.—Bigarren atal onek' ona zer dion: "*La Academia dará una norma respecto a la sintaxis, admitiendo dos formas diferentes igualmente aceptables, la del* N *y la del* S".

Iritzi orrek, nere ustez' eztu egi-sustrairik. Euskal-sintaxis lege nagusiak' berdiñak ditugu, zorionez, bai ipar-aldeko, bai ego-aldeko euskaldunok. "*Formas diferentes*" direlako oik' badira, bai, zoritxarrez; onako oietxek:

1°. Aintxiñatiko sintaxis jatorra.

2n. Erdal-kutsuz makaldua.

Baiña diperentzi orrek' eztu zer ikusirik iparraldeaz eta egoaldeaz. Eskualde bietan sortua degu gaitz ori, ots, Euskalerri guzian.

Baiña, tamalgarria' deitoragarria' au degu:

Sintaxis jatorra' erri xeeak, erri-erriak kóntsérbatu du garbienik eta bizienik; gurasoetatik semeetara eldu zaigun euskera erritiarrak irákatsi digu beti, eta irakastén, gaur ere, ongienik.

Ordea, *erdal-kutsuz* eritua degun euskal-sintaxis ori' euskaldun eskolatuek ekárri digute, alegia, idazlariek, eta batez ere' eliz-sermolariek, predikatzailleek. Au' nahi gabe eta konturatzeke egín digute euskaldun eskolatuok. ¡Bai ba! beroiek ere, eskolak ikasteko' bearreko zúten erderazko liburu, erdaljende, eta erdal eskoletan ikasteak egitea; orretaraxe, igarri gabe, kutsatu ziran, lenbizi, beroik, eta edatzen arí, gure artean, gakiozkan erdal-gaitz ori.

Okerkeri orrezaz, konturatu beár zuten, noizbait, euskaldun eskolatuok, eta ola sórtu zan, sortzaldeko euskal-idazle askoren artean beintzat' euskal-sintaxis jatorraren aldeko jokera. (1)

---

(1) Nere ustez, garai artan, Azkue izán genuan, zuzen-bide ori, ezaguerarik argienez artu zuana.

Garai bertantxe eta zoritxarrez, Azkuek berak' erderatiko itzen kontrako geiegikeria érein zuan (eta gogotik) euskal-idazleen buru-muiñetan; onela alde batetik egin zuan ona' bestetik illundu zuan. Bere «Euskalzale»-n edo, erderatiko itz batzuez ari zalarik' onako auxe jáurti zuan: «Eta euron antzeko berba guztiak oraindixek pillotuten asiko gara; ta **iru urte barru, lenago ezpada,** euron ordezko berba garbi ederrak zabaldu daizanean, su emongo iako erderakada pillo orreri». Olako esate ta egite neurrigabeak' asko trabatu dute euskal-literaturaren edakuntza. (Beratxoago ere esango degu, zerbait, gai beronezaz).

Orra or, arako "*formas diferentes*" delako itz oiei, nere iritziz, eman bear zaien sentidua eta erantzuna.

Itz oiei darraikiela' au irákurtzen degu:

"*Se ha llegado a extremos ridículos en cuanto a restringir determinado orden de los términos de la oración*".

Nik eztakit, itzen ordenatze orrezaz, olako geiegikeririk nok predikatu duan. Baiña autu orrek' auxe dekarkit burura.

Gure inguruko erdal-mintzairek ere' badituzte *ausi eziñeko* sintaxis legerik asko, baiña oien alde predikatzen ekiteko' eztute euskaldunok bezelako premiarik.

Nik egunero éntzuten ditut, emen. Bizkaiko erdaldun edo-ta euskaldun erdal-zaleen aotik' *euskerakada* bitxi ta oargarriak, alegia, len ere iñoiz aipatuak ditudan esaera oien antzekoak:

"Moda QUE es (me dijo).".

"La perla del medio de la más grande de Bilbao QUE es (dicen)" (Klin-Klon, Bilbotar erdal-idazle barre eragilleak).

Onelako *euskerakadak* ebitatzeko' erdal-gramatikalariek' bear lúkete esan, Azkueren lezio ezagutu baten irudira: "Mejor construídas estarían esa clase de frases diciendo así:

"QUE es de moda" "QUE está de moda"... pues los pronombres relativos, los conjuntivos, etc., por su oficio de poner en relación una frase con otra, deben, como los mojones, ocupar el extremo ("el inicial" erderaz) de su jurisdicción". Azkuek, euskal-idazleen "erderakadak" zuzentzeko agértu zigun gramatika-lezio ori. Kontrara, erdal-sintaxiseri egin lezaizkion okerkeriak, alegia, goragoko Klin-Klon-enak bezelako "euskerakadak" zuzentzeko' ez dute, erdal-gramatikariek, ardurarik artzen; ezpaitute ortarako premiarik ere.

Orixe gértatzen da erderaren beste sintaxis lege askozaz ere. Erdal-gramatikalariak, eztitu predikatzen; zerren-eta ganorazko idazleek autsiko dituan beldurrik' ezpaitu. Benetako osasuna duten eta galtzeko arriskurik ere ez duten izkuntzek' eztute gramatika arazoetan, euskaldunok bezela, idazleen buruak nekatzen ekin bearrik.

Euskal-idazle batzuek, gure sintaxis legeak zerbaitetan autsi arren' euskerak kalte aundirik ez lukeala uste dute. ¿Ezetz?

"Erderismos" liburuaren 171-gn. orri inguruetan erakutsiriko sintaxis lege bat egiztatzeko eta argitzeko' agertu nituan ejenplurik asko; kopiatu dítzadan, ementxe, batzu-batzuk:

Castellano	*Euskera*
a) Queriendo b) ganar.	b) Irabazi a) nairik.
a) (El) comer b) para vivir.	b) Bizi izateko a) jatea.
a) (El) vivir b) para comer.	b) Jateko a) bizi izatea.
a) Queriendo b) enseñar c) a hablar	c) Izketan b) irakatsi a) nairik .....

Olako ejenplu geiago (euskerazko guziak, beti, erderazkoen itxulitara sintaxistuak) agertu' eta gero, auxe geitu nuan:

"Las precedentes locuciones euskéricas están transcritas, tal como constante e inalterablemente salen de los labios del pueblo euskaldun. El día en que ese pueblo vacilara en su acertada composición (inversa a la española) perdiendo la noción exacta y clara del valor morfológico que el orden de colocación de sus términos infunde a esas locuciones, habría perdido el euskera su virtualidad para servir de medio de expresión..."

Berorixe esán dezakegu gure sintaxis-lege guziez ere; oik galtzeak' euskal-izkuntzari, zeaztasun ta argitasun bideak guziz illúntzen dizkio.

Egia, Klin-Klon-en goragoko esaera errexak' eta aien idurikoak (erderazko naiz euskerazko)' edonok konprenitzen ditu, sintaxis-legerik nagusienen kontrako izan arren. Baiña, euskera, *gauza sakontxoak* esateko, eta batez ere, idazteko gai ta baliozko egin nai baldin badezagu' sintaxis-legerik jatorrenezko argiz eta zeaztasunez ornitu bearra dúkegu.

Baiña, kóntuz: euskera gutxi mintzatu, eta erderaz irakurtzen eta izketan geiegi ekin dezaion euskaldun eskolatuak' *erdal-sintaxisez kutsaturiko* euskera duke, maiz, *jatorra* baiño argiagotzat.

Baiña, olako uste ta jarraipideak' engaiñagarri ditugu; eta euskera, ondamendira deramakigukete.

Euskal-sintaxisa eta erdal-sintaxisa' sustrai-sustraiz' elkarkontrako dira. Erderak goitik-berako (*determinado, determinantes* delako) bidea jarraitzen du: "UN HOMBRE de tal o tal

clase, condición..." Euskerak ordea' betik gorakoa: "Onelako edo alako eratako GIZON BAT". Erderak' "TRAERAN en tal día o de tal manera". Euskerak' "Ain egunean edo ain modutara EKARRIKO DUTE". Erderak' "SI OCURRE así o de otro modo". Euskerak' "Onela edo bestela GERTA BADADI..." Eraberean onelako esakereetan ere: Erderak' "VACA de leche"; euskerak' "Eznedun BEIA" edo "Ezne BEIA". Erderak' "LECHE de vaca"; euskerak' "Beiaren EZNEA" edo "Bei-EZNEA"...

Euskal-gramatika guzia' (deklinazio, morfologi ta abar') dena ortaraxe formatua degu; eta jokera orren kontrako zerakin' ez gintezke, euskera edertzen eta baliozkotzen' urrun-urrun irixten ahal, batez-ere, erdaldundu gabeko euskaldunek jarrai gaitzatela nai badegu.

Euskal-sintaxis-legeek' ikusi degunez' jokera ortantxe áurkitzen dute giltza ta ederpidea. Alegindu gáitezen, beraz, legeoi eusten, iraun-arazten, indarra ematen.

C.—Irugarren atal onek' *Erderatiko Itzei* deragoie.

Gai orrezaz' 1959-ko Aprillaren 2-an' Euskaltzaindiak, zabaldu dú, inportantzi eta balio aundiko idazki-orri bat, izen onekin: "*Declaración de la Academia de la Lengua Vasca acerca del vocabulario del euskera*".

A. Arrue eta A. Irigaray euskaltzain azkarrek ere' idatzi dute lan luzetxo bat, gai orreri eta beste batzuei ekiten dietelarik. Jaun oiek, gauza jakingarri askoren artean' onako iritzi au agértzen digute, alegia, gaur, gipuzkera dégula, noski, geien idatzia, baiña *lapurdiera errexen irakurria.*

¿Nola (diot nik) kontra-itzezko zer ori?

Beste zegaitiko batzuen artean' ona emen, nere ustez, agiri-agiriko bat.

Lapurdierazko idazleek' benetan erriratuak diran itzak' erderatiko naiz euskeratiko' eztituzte muxintzen, maite dituzte; beraz, erritiar itzok' eztituzte baztertuko, ez-eta ordeaztuko, erri-erriak ortarakoxe eztarabilzkian beste itz batzuez.

Ego-aldeko idazleok ere, irakurleak geitzeko' lapurtarren lege orreri beár genioke jarraitu. Orixe irákasten digute, gaureguneko izkuntzalari jakitunenek ere. Urrunerago gabe' ikusi, *Américo Castro*-ren "*El Elemento Extraño en el Lenguaje*" (Publicaciones de la Sociedad de Estudios Vascos, 1921).

Gernika, 1960

S. Altube-k